

Jakes Bortairu

EUSKAL KONFEDERAZIOKO KIDEA

Eztabaida instituzionala argitzen ari

A

spaldikoa da instituzioari buruzko eztabaida Iparraldean, baina azelerazio nabarmena hartu du azken hilabete hauetan. 2010eko abenduan frantses parlamentuak onartu zuen Lurralde Elkargoaren erreformak arkitektura instituzionalen uniformitatearen printzipio sakratua urratu zuen, eskualde batzuentzat aukera berriak irekiz (ad: Alsaziako erregioa eta bi departamenduak batuko dira). Ipar Euskal Herriarentzat aldiz *Pays* egitura juridikoa deuseztatuz, 1994tik abiatu eta eraiki gobernantza dispositiboa (Garapen eta Hautetsien Kontseiluak) oinarririk gabe utzi zuen. Mehatxu konkretu horrek gustatu ala ez, etorkizun instituzionalari buruzko eztabaida saihestezina bihurtu du.

Denbora berean, Euskal Herriko egoera politiko berriak lerroak mugitzen lagundu du, urteetan Frantziako Estatu buruzagiek erabiltzen zuten argumentu-estakurua jokoz kanpo utziz: bortizkeriak irauten zueno ezin zen ezagupen instituzionala onartu, borroka armatuari amore ematea izanzen zelakoan eta ETaren kontrako Madrileko borroka tratatuko zuelakoan.

Azken faktorea eragile batzuen urteetako lanaren fruitua dugu: abertzaleen aldarrikapenak eta bereziki Batera plataformaren lana, hamar urtez lan pedagogikoa mobilizazioekin uztartu duena. Faktore horiek



DANI BLANCO

guztiak Garapen eta Hautetsien Kontseiluek pasa den azarotik antolatu duten ikerketa lanen iturburuak izan dira. Alde batetik mota guztietako eragile sozial, kultural eta ekonomikoak sei lan taldean elkartu dira, politika publiko guztiak banaka ikertuz eta nondik kudeatu behar diren definituz, balizko instituzio baten eskumenak marraztuz. Denbora berean jurista talde batek frantses legediak eskainitako hipotesi guztiak aztertu ditu, inolako taburik gabe, aterabide bakoitzaren abantailak eta mugak agerian utziz. Paraleloki 40 pasa elkarriketa egin dira eragile politiko eta sozialekin, ordu arteko iritzi bilketarik zabalena. Martxoaren 8an, konklusioak aurkezterakoan beste eszenatoki batera heldu garelako irudia eman da: Lurralde Elkargo baten sorrera hipotesia sinesgarrien eta hoberena bezala aurkeztua izan baita.

Irekitako bidea nekez hetsiko da orain. Ondoko hilabeteetako eztabaida erabat loturik dauden bi mailatan garatuko da: Lurralde Elkargo horren eskumenak eta beste instituzioekiko harremanak. Jokoan dagoena zera da: Lurralde Elkargo hau departamendu barnean kokatuko ote da, Pirinio Atlantikoako departamendua ordezkatu ote du Euskal Herriko lurraldean edota Akitania erregioa ere bai? ■



Irekitako bidea nekez

hetsiko da orain.

Ondoko hilabeteetako

eztabaida erabat

loturik dauden bi

mailatan garatuko da:

Lurralde Elkargo horren

eskumenak eta beste

instituzioekiko

harremanak

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Donibane Lohizuneko Urdazu-bi ibaian. Arratsaldeko lauak aldean, hogeita lau gradu. Bero. Antolatzaileen xapitoan, plastikopean auskalo, hogeita hamarretik goiti. Hirurehun bat arraunlari, neskak, mutilak, gizonetzkoak eta emakumezkoak. Kolore gaitzeko elastikoak, horiak, arroxak, moreak, urdinak, berdeak... Mende bat baino gehiagoko tradizioa duen kirola zein abandonatuta daukagun baieztatzeko egun egokia. Banaka, minutura. Gazteenetatik hasita mailaz guztiak lanean. Ikusleak eta klubetakoak zenbatuta arraunlariak beste. Ez gehiago. Kronometroak dantzan, animuak doinu.

Batelak

Bi orduko ikuskizuna sesiorik gabe burutua. Sekulako lan profesionala poz truk egina, egunerokoan oinarritua. Eta hasi aurretik ikusi gabeko ontzien garraiatzea, mimo handiz tratatutako materialak eskatzen zuten arduraz aritu ziren klubetako laguntzaileek harritu ninduten berriro ere, jakinik, onenean, hedabideek emaitzen berri soilik emango zutela, han parte hartutako inoren izenik ez genuela prentsan ikasiko. Estropaden ondoren arraunlarien gorpuzkerak eta erreperazioak ikusita, inork ezingo du esan alferrik dabilzala, metatutako nekeek etorkizun osasuntsua ekarriko baitiete. ■

